

itzulpena: Koldo Izagirre

Carlos

Ortiz

de Andrade





**Munduko
Poesia
Kaierak**

Carlos Drummond de Andrade

itzulpena: KOLDO IZAGIRRE

 **Susasa** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

- © Carlos Drummond de Andrade
- © itzulpenarena: Koldo Izagirre
- © edizio honena: Susa

2014ko urria

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Carlos Drummond de Andrade Brasilgo poesiako autore kanonikoetako bat dugu, literaturaren historietako XX. mendeko atalean salbuespenik gabe ageri zaiguna. Korronte modernistan kokatu izan da gu-txi-asko, baina haren bigarren belaunaldiko kide gisa edo modernismoaren ondorengo gisa. “Modernismo” hitzak esanahi aski diferenteak gorde ohi ditu literatur tradizioaren arabera. Brasilgo literaturan, 1922ko Arte Modernoaren Astean jartzen da abian modernismoa, besteren artean, Mario de Andrade, Oswaldo de Andrade eta Manuel Bandeiraren eskutik. Azken honi eskaini zion Drummonddek poema zorrotz eta umoretsu bat, *Literatur politika*. 1922ko Belaunaldiko kideek askatu zuten Brasilgo poesia egitura tradizional eta metrika zurrunetatik, eta Drummonddek berak ere, haien ildoan, bertsolerro eta poesia librearen hautua egingo du, *Poetaren begiramena* poeman irakur dezakegun moduan.

1902an jaio zen Itabiran, Minas Gerais probintzian. Jaioterria sarri ageri da bere poesian, antologia honen irakurleak konprobatu ahalko duen legez. Garai politiko eta sozial gorabeheratsuak bizi izan zituen: 1930eko iraultza, Getulio Vargas-en agintal-

diak, estatu kolpeak, 1964tik aurrerako diktadura militarra... Garai gatazkatsu horren zantzuak sumatzen dira lerro nahiz lerroarteetan. Poeta moduan da ez-bairik gabe ezagun, baina prosa lanak ere argitaratu zituen, ipuinak eta kronikak batik bat.

Drummondren poesiaren ezaugarri deigarrienetako bat bere aberastasuna da. Taxuera, forma, gai, erritmo askotariko poemak aurkitzen ahal ditugu bere obran —eta baita, honenbestez, antologia honetan—. Obra poetiko oparoa izan zuen Drummondrek, berrogeita hamar urte baino gehiagoz luzatu zen haren emari poetikoa, eta denbora horretan bertsoak ugari saiatu zituen. Hor ditugu erritmo jakin batzuen bidez eta errepikapenez ondutako poemak, *Bidearen erdian* edo *Bonba* kasu, edo lengoaia poetikoaren abilezia nabaria ageri duen *Giza berbaren inguruko otekizunak* edo *Eztuzki, liluzki, ilunuzki, maituzki*. Hor ditugu, bestalde, *Amerika* moduko zurrumbilo-poemak, edo prosa poetikora hurbiltzen den *Langilea itsasoan*. Irakurleak umorerik ere ez du faltan izango, Objektu Hegalari Ezezagunak hizpide dituen *Plater baten beharrean* poema bikainean adibidez.

Eduki soziala duten poemak ere azpimarragarriak dira Drummondren poesian. Inork pentsa lezake futbol

partida edo txapelketa bat nekez izan daitekeela poesiarako gai, baina brasildarrak aurreiritzi horiek hankaz gora ipini zituen 1970. urtean Mexikon jokaturako eta Brasilgo selekzioak irabazitako Munduko Futbol Txapelketaren harira idatzitako liburuarekin: *Futbol a arte (Futbolaren artea)*. Hango bi poema topatuko ditu irakurleak antologian: *70eko Munduko Kopa I* eta *70eko Munduko Kopa II*. Brasilgo kultur adierazpen sonatuenetako bati, inauteriari alegia, egindako erreferentziak ere anitz dira bere obran, eta antologian hari buruzko poema oso bat dugu: *Festa II*. Inauterien hordialdiaren poz eta nekeak, tasun eta keriak irakurriko ditugu poeman zorrozki deskribaturik; menturaz, euskal irakurleak, Drummonddek “inauteria” ipintzen duen tokian “San Ferminak” ipiniko du eta poema auzoak idatzitakoa dela irudituko zaio.

Drummondren ironia eta zolitasunaren gibelean poeta egiati eta leial bat sumatzen ahal dugu, idazle engaiatua haren idazkiekiko bere inguruarekiko bezain. Drummonddek berak beste inork baino hobeki esan zuen moduan: “Irriñoa besterik ez naiz / gizon isil baten aurpegian”.

BEÑAT SARASOLA

Zazpi alderdiko poema

Sortu nintzelarik, aingeru makur batek,
itzalean bizi diren horietakoak,
honela esan zidan: bizitzan, Carlos, beti izanen zara
gauche.

Emakumeen ondotik dabiltzan gizonak
barrandatzen dituzte etxeek.
Ilunabarra urdina balitz
ez genuke menturaz hainbeste nahikari.

Busa beterik iragan da izterrez:
izter zuri hori beltzez.
Zertarako horrenbeste izter, Jainko jauna!, galdezka
ene bihotza.

Alabaina, begiok
ez dute deus galdetzen.

Bibote osteko gizona
seriosa da, sotila eta sakona.
Ozta egiten duen hitzik.
Lagun bakan, bereziak ditu

bibote eta betaurreko osteko gizonak.

Jainko jauna, zergatik utzi ninduzun
ni Jainkoa ez nintzela jakinik
ni ahula nintzela jakinik.

Mundu mundu mundu zabal
baldin banintz Mendizabal
errima bat edukiko nuke, konponbide motza.
Mundu mundu mundu zabal
zabalago ene bihotza.

Ez nizuke esan behar
baina ilargi horrek
pattar horrek
arraioa baino hunkituago uzten naute.

Literatur politika

Manuel Bandeirari

Poeta udaleko
eta poeta eskualdeko
eztabaidan nork azpiratuko poeta lurraldeko.

Bien bitartean poeta lurraldeko
urra ateratzen ari da sudurretik.

Bidearen erdian

Bidearen erdian harria
harria bidearen erdian
harria
bidearen erdian harria

Ez zait inoiz atzenduko gertatu hori
betazal nekatuon bizitzan.
Ez zait inoiz atzenduko bidearen erdian
harria
harria bidearen erdian
bidearen erdian harria.

Kuadrila

Inor maite ez zuen Lili
maite zuen Joakin maite zuen Maria
maite zuen Raimundo maite zuen Teresa maite zuen
Joak
Joak Estatu Batuetara alde egin zuen, Teresak
komentura,
Raimundo destorbuz hil zen, Maria izekotzan geratu
zen,
Joakinek bere buruaz beste egin zuen eta Lili
historia honetan lekurik ez zeukan J. Pinto
Fernandesekin zitzaigun ezkondu.

Ekilorea

Ekilore hura Palmirako lorategi publikoan.
Juiz de Forara zindoazen autoz, gasolina ahitu,
bizartegi bat zegoen, argazkilaria, eliza, haur bat
zutik,
bazen (besteak beste) ekilore bat. Neska iragan.
Bularren eta ekilorearen artean trabaturik zure
borondatea.

Hegan egiteko, maitatzeko, zoriontsu izateko,
bidaiatzeko, ezkontzeko, ume asko
izateko nahikari infantila;
neska harekin argazkia egitekoa, jolas lizunak
saiatzekoa, zoritxarreko izatekoa eta
otoitzean hastekoa;
nahikari handia; neskak ez zizun antzik eman...
Elizaren atetik sartu zen, ametsen atetik irten.

Ekilorea, ergel halakoa, ez zen ohartu.

Mundumin

Bi esku baino ez
eta mundumin,
baina gatibuz betea
oroitzapen jario,
eta gorputzak etsi egin
maitasunezko batzera.

Jaikitakoan, hila eta
soildua ageriko da zerua,
neu ere hilik egonen naiz,
hilik nire grina, hilik
akorderik gabeko istilean.

Lagunek ez zidaten esan
gerra bat zegoenik
eta sua eta azkurria
ekarri behar zenik.
Barreiatua sentitzen naiz,
mugez aurreragokoa,
apalik dizuet eskatzen
barka nazazuela.

Gorpuak pasatuko direnean,
bakarrik geratuko naiz
albainuak kentzen
kanpajolearen, alargunaren eta
mikroskopistaren oroitzapenari,
txabolan bizi ziren
eta ez zituzten aurkitu egunsentian,

gaua baino gauagoko
egunsenti horretan.

Itaribatarraren aitortza

Itariban bizi izan nintzen zenbait urtez.
Batez ere sortu egin nintzen ni Itariban.
Horregatik naiz iluna, harroa: burdinazkoa.
Ehuneko laurogeita hamar espaloietan burdina.
Ehuneko laurogei arimetan burdina.
Eta aldentze hori bizitzan porositatea eta
komunikazioa den orotik.

Maitatzeko nahikaria, lana eragozten didana,
Itaribatik datorkit, emakumerik eta helbururik
gabeko gau zuri haietarik.

Libertigarri zaidan sufritzeko ohitura
Itaribaren herentzia ezta da.

Itaribatik ekarri nituen orain eskaintzen dizkizudan
esku-erakutsiok:

Alfredo Duval santugin zaharraren San Benedikto
hau;

tapir larru hau bisita gelako sofarako;
fiertasun hau, buru makur hau...

Urreduna izan nintzen, alorduna izan nintzen.

Egun kargulant publikoa naiz.

Itariba ozta da hormako argazki bat.

Baina nola ematen min!

Beldurraren nazioarteko batzarra

Oraingoz ez dugu maitasuna kantatuko,
lurpekoez beherago ezkutatu baita.

Besarkadak esterilizatzen dituen beldurra kantatuko
dugu,

ez dugu gorrotoa kantatuko, halakorik ez dagoelako,
aita eta laguna dugun beldurra besterik ez dago,
sertao itsaso, basamortuetako beldur handia,
soldaduen beldurra, amen beldurra, elizen beldurra,
diktadoreen beldurra, demokraten beldurra
kantatuko dugu,

heriotzaren eta heriondoaren beldurra kantatuko
dugu,

gero beldurrak hilen gara

eta gure hilobietan lore horixkak eta beldurtiak dira
sortuko.

1938 eresia

Pozik gabe egiten duk lana mundu zaharkitu
baterako,
non manerek eta eginek ez duten batere eredurik
ematen.

Nekez dituk praktikatzen keinu unibertsalak,
hotz eta bero haiz, diru eskas, gose eta sexu
premian.

Heroiek betetzen ditiztek herrestan hoan hiriko
parkeak
eta bertutea, ukoa, odol hotza eta umatzea dute
sustatzen.

Gaez, langarrik bada, brontzezko aterkiak
zabaltzen ditiztek
edo liburutegi hitsetako aleetan dituk aterpetzen.

Daukan suntsitzeko ahalmenagatik maite duk gaua
eta badakik, lo, arazoen salbuesten hautela hiltzetik.
Baina Makina Handia hor dela frogatzen dik itzartze
beldurgarriak,

eta ezin kodegabetuzko palmondoen aitzinean
paratzen hau, ttipiño.

Hildakoen artean hoa eta haiekin solasten haiz
etorkizuneko gauzaz eta espirituaren aferaz.
Literaturak hondatu ditik hire amodio ordurik
onenak.

Ereiteko denbora asko, askotxo galdu duk
telefonoan.

Bihotz harro, presatua haiz heure porrota aitortu eta
zorion kolektiboa beste menderen batera
gibeleratzeko.

Euria, gerra, langabezia eta bidegabeko partekatzea
onartzen dituk

Manhattan uhartea ezin dualako, heuk bakarrik,
zapartarazi.

Eskurik esku

Ez naiz izanen erorkizun den mundu baten poeta.
Etorkizun den mundua ere ez dut kantatuko.
Bizitzari kateatua nago eta lagunak ditut begiko.
Isilik daude baina esperantza handiak gizentzen
dituzte.

Haiekin batera, errealitate erraldoia dut haztatzen.
Oraina hain da handia, ez gaitezen urrun.
Ez gaitezen asko urrun, goazen eskurik esku.

Ez naiz emakume baten, maitaro baten kantaria
izanen,
ez ditut hitz eginen arrastiriko hasperenak, leihotik
ikusi paisaia,
ez ditut modorragarriak edo suizida gutunak
banatuko,
ez naiz uharteetara lekutuko, ez naute goiaingeruek
bahituko.

Aldia da ene gaia, orainaldia, aldian aldiko gizakiak,
bizialdi hau.

Belo Horizonteko mamu-neskaren abestia

Mamu-neska naiz
Berunaren karrikan naukazue
egunsentiko gurdia noiz etorriko.
Zuria naiz eta luze eta hotza,
ene haragia hasperena da
Serrako egunsentian.
Mamu-neska nauzue.
Maria dut izena
Maria Lehenago Hila.

Zuen maitalea nauzue,
heste-sobrak,
auto istripuak hila edo
hondartzan bere buruaz
beste egindakoa
eta zuen oroimenean
ileak luze utzitakoa.
Ez ninduzuen inoiz
mundu honetakoa izan:
Musu ematen banuen,

ene ahoa beste planetez
mintzo zen, haietan
su garbi batean
erretzen dira maitaleak
eta izar bihurtzen,
ironiarik gabe esateko.

Besteak lez zuena izateko
astirik gabe hila nauzue.
Ez naiz batere ados,
eta poliziak lo daudela
ene barruan ene auzoan,
nire espektro ibiltaria
Serra do Curral behera dator
etxe berriak ikusiz,
amodio baratzeak kirikatzen ditu
(Claudio Manuel da Costa karrika),
Abrigo Cearan gelditzen da,
aterperik ez. Ezagutzen ez dudan
lurrin batek hartzen nau:
Espainiako emeen besoetan kiribildutako
zuen amets bero, gozoaren usaina da...
O, utz nazazue zuekin oheratzen!

Eta beraz, ez dudanez aurkitzen
Frantziako emeek konkistatu eta
Brasilen zegoen whisky guztia
edan zuten ene maitaleetatik bakar bat ere
(orain mozkorturik daude lo),
iragaten diren autoak zelatatzen ditut,
txoferrek ez dute ene zurtasunaz
susmo txarrik hartzen,
eta ihes egiten dute.

Zaindari lotsorrak berriz, gizajoak!
Atxilotu egin nahi izan ninduen batek.
Besoak zabaldu nituen...

Sinetsi ezinik, haztatu egin ninduen.
Ez neukan haragirik,
eta soinekoaren gainetik
eta soinekoaren azpitik
ausentzia zuri berdina nintzen,
etsipen zuri besterik ez...

Ikusi: gorputza zena
katuak jan zuen.

Artean bizirik dauden neskak
(hil egin behar dute, zaudete ziur)
beldur dira azalduko naizen

eta zangotik oratuko diedan... Pitokeria.

Ni neska izan nintzen, neska izanen naiz...

neskutsa, *per omnia saecula*.

Ez dut neskez deus jakin nahi.

Baina mutilek zoratu egiten naute.

Ez dakit nola libera nintekeen.

Mamuak ez balu sufrituko,

oraino atsegingarri banitu

eta espiritismoak onartuko balu,

baina badakit debekatua dagoela,

zuek haragia zarete, ni gandua.

Serran eguzkia ageri denean

urtu egiten den gandua.

Orain kontsolatua naiz,

nahi nuen guztia esan dut,

hodei hartara igo eta

lamina izoztua izanen naiz,

gizonen gainetik izarniatuz.

Parauna Etorbideko

piszinan eginen dudana isladura

(izarrak ez dira ulertzen ahal)

ez du inork ulertuko.

Langilea itsasoan

Langile bat karrikan barrena. Zeinen tente doan! Ez dauka blusarik. Ipuinean, draman, berbaldi politikoan, langilearen oinazea bere oihal zakarreko blusa urdinean dago, esku zakarretan, itzelezko zangoetan, itzelezko lasai-ezinetan. Gizon arrunta da, gainerakoa baino doi bat ilunagoa, eta esangura arraro bat dakar gorputzean, mandatuak eta sekretuak garraio. Nora ote doa urratsa hain tinko emanetz? Ez dakit. Lantegia atzean geratua da. Aitzinean landa besterik ez, zenbait zuhaitz, gasolina amerikarraren publizitate handia eta kableak, kableak, kableak. Langileak ez dauka astirik atzemateko kableok mezuak ekarri-eramanen ari direla Errusia, Araguaia, Estatu Batuak aipatuz. Ez du entzuten, Diputatuen Ganberan, oposizioko liderra alarauka. Landan barrena doa eta ozta atzematen du ura doala bertatik, aurrerago bero dagoela. Nora ote doa langilea? Ahalke naiz anaia esateko. Badaki ez dela, inoiz ez nuen anaia izan, ez dugu elkar inoiz konprenituko. Eta erdeinugarria naitzaio... Edo menturaz ni naiz neure buruaren arbuia-tzaile haren aitzinean. Ahalke eta hari buru egiteko

gogotan naiz: kasik leihotik jauzi egitera, aurrean erortzera, ibilia etetera, besterik ez bada ibilia eten dezala behintzat erregutzera behartzen nauen liluramendu bat. Orain itsasoan barrena doa. Nik uste nuen horrelakoak zenbait santu eta ontziren pribilegioa zela. Baina ez dago batere santutasunik langilearen baitan, eta ez dut gurpilik ez helizerik ikusten itxuraz arrunta den bere gorputzean. Oharteman dut itsasoa ikaratu dela eta utzi egin diola pasatzen. Non daude gure armadak, miraria ez eragozteko? Baina orain nabaritzen dut langilea akitua dagoela eta busti egin dela, ez asko, baina busti, eta arrainak isurtzen zaizkiola eskuetatik. Ikusten dut itzuli eta barre bat egiten didala. Eragabetzen ari den arratsaldea bera dira haren aurpegiaren zurbila eta nahasia. Minutu baten buruan gautuko du eta erremediorik gabe bananduko gaituzte inguruabar atmosferikoek, ni lur barrenean, bera itsasoaren erdian. Gure arteko loturaren eragile bakar eta kolokako, bere gero eta hotzagoko barreak masa likido handiak trabeskatu ditu, jo egin ditu gatz metaketak, itsasertzeko gotorlekuak, marmokak, dena trabeskatu du eta aurpegian musu ematera datorkit, ulertu uste bat ekartzera. Bai, eta nork daki halako batean ulertu ahal izanen dudan?

Itsasoaren pribilegioa

Bestelako erosoan ez den terraza honetan
garagardoa hartu eta itsasoari beha gaude.
Badakigu ez zaigula deus gertatuko.

Eraikina sendoa da eta mundua ere bai.

Badakigu eraikin bakoitzak milaka gorputz
aterpetzen dituela
milaka konpartimentu berdinetan jo eta ke.
Aldizka, zenbaitzuk unaturik sartzen dira igogailuan
eta goi honetaraino datoz itsas brisa,
eraikinen pribilegioa, hats hartzera.

Egiazki, mundua iraulika armatuz egina dago.

Egiazki, kruasier zororen bat balego
badian aingura emana hiriaren aitzinean,
bizitza beldurgarria izanen litzateke... urgarria...
Baina marinel leialak besterik ez itsaso barean.
Zeinen abegikorra den eskuadra!

Patxada merezian har genezake geure garagardoa.

Lepoak eusten du mundua

Jainko jauna esaten ez den garaia heltzen zaigu.

Guztiz garbitzeko garaia.

Ene laztana esaten ez den garaia

Maitasuna alferlana gertatu zelako.

Eta begiek malkorik ez.

Eta eskuek nekez ehuntzen dute lan zakarra.

Eta bihotza idor.

Alferrik emakumezkoak ate joka, ez duzu irekiko.

Bakarrik geratu zara, argia itzali egin zen

baina ilunpean handi dute distiratzen zure begiek.

Guztiz zara jakile, jadanik ez dakizu sufritzen.

Eta lagunengandik ezer espero ez.

Ez du ardura zahardadea heltzea, zer da

zahardadea?

Zure lepoak mundua eusten du

eta ez da haur baten eskua baino astunagoa.

Gerlek, goseteek, eraikin barruko eztabaidek

bizitzak iraun egiten duela darakuste

eta oraindik ez dira denak liberatu.

Baten batzuek, ikusgarriari barbaroa iritzirik
nahiago lukete (minkun) heriotza.

Heriotzak ezertarako balio ez duen garaia heldu da.

Bizitzak agindu egiten duen garaia heldu da.

Bizitzak berak, mistifikaziorik gabe.

Poemaren begiramena

Ez ditut errimatuko ametsa
eta ez dagokion ostertza.

Haragi hitzarekin dut errimatuko
edo beste edozeinekin, denak zaizkit on.

Hitzak ez dira lotuak sortzen,
jauzi egiten dute, musu ematen dute, suntsitu egiten
dira,

zeru agerian marrazki dira aldizka,
garbiak, luzeak, zinezkoak, inbadigaitzak.

Harri bat bidearen erdian
edo aztarna huts bat, ez du ardura.

Poeta horiek neureak ditut. Guztiz harro
guztiz zehatz batuko zaizkit
neure saihetsezineko ezker saihetsera. Kentzen diot

Viniciusi

bere eresirik gardenena. Murilorenean edaten dut.
Nerudak eman diezadala bere krabata

kartsua. Apollinairerenean galtzen naiz. Agur,
Maiakovski.

Anaiak ditut denak, ez ditut kazetak

ez txaluparen kamelia arteko lerradura:
ene bizitza jokatu dut osorik.

Poema hauek neureak ditut. Nire lurra da
eta are gehiago. Edozein gizon da
eguerdiz edozein plazatan. Linterna da
edozein ostatutan, oraino halakorik bada.
—Hilik bai? Merkatu bai? Eritasunik bai?
Dena da neurea. Lehergarria izatea, muga barik,
zein doilorkeria faltsuk naramake urratzera?
Eman daitezela musuak aurpegi zurian, zimur
sortuberrietan.

Komertziorik ezarena seinale da oraino,
galdua hala ere, musua, garai zikinetan flotatzen.

Finituaren eta materiaren poeta,
errukirik gabeko kantari, bai, malko merke bakoa,
horren eztarri lehor, baina horren suhartasun aratz.
Dena ematea urrunduen presentziagatik,
oihartzunak badaudela nabaritzea, bakan batzuk,
baina leiar,

ez bakarrik harkaitz, arrainak zirkulatzen
mezu hau daraman baforearen azpitik,
eta moko luzeko hegaztiak arruta

egiaztatzen, eta bizpahiru farola,
azkenak! itsaso beltzaren esperantza.
Bidaia hori hilezkorra da, abia zaitez.
Dena dela badela dena. Eta milioika eta milioika
forma bitxi, sekretu, gogorren erdian ibiltzea.
Horra nire kantua.

Hain apala baita, ozta aditzen da
belarria lurrean. Baina hain baita ozena,
harriek xurgatu egiten duten. Liburu,
gutun eta botiketari zabalduak mahaian dago.
Horman infiltratu zen. Tranbia, karrika,
ikastetxeko uniformeak eraldatu egiten dira,
laxtasun uhinak dira zu biltzeko.

Nola egin ihes mendreneko objektuari
edo uko handiari? Gaiak irautsi egiten dira,
badakit irautsiko direla, baina zuk eutsi egiten
 diozu,
eta sua bezala zara hazten, etxea bezala,
belarretan pausatu diren
hazten arteko basura bezala.

Orain edonora jarraitzen dizut,

eta desiratzen zaitut eta galdu egiten zaitut, aserik,
noratzen naiz, egiten naiz, hain goren,
hain natural eta sekretuz beterik,
hain tinko, hain leial... Xafla bat irudi,
herriak, poema neurea, zaitu alderik alde iragaiten

Esnedunaren heriotza

Esne guti dugu herrian
goiz banatu behar da.
Egarri handia dugu herrian
goiz banatu behar da.
Badugu erranairu bat herrian,
tiro batek hilen du lapurra.

Beraz esneduna den mutila
badoa egunsentian
bere marmitarekin lasterka
esne ona banatuz
jende gaiztoari.
Bere marmita, bere botilak
eta bere kautxuzko oinetakoak
deika ari dira lo dauden gizonei
baten bat jaikia dela goizean goiz
eta azken aldiritik heldu dela
behirik onenaren esnerik freskoena
eta zuriena banatzeko
denei indar ematearren
hiriko borroka gogorrean.

Botila zuria eskuan,
ez dauka astirik esateko
nik eransten dizkiodan gauzak,
ez daki, mutil esnedun ezjakinak,
Namur karrikako biztanle
biltegiko enplegatua
hogeita bat urteko,
zer izan litekeen
giza zabaltasunaren oldarra.
Eta presatua baita, gorputzak
etxeen atarian uzten du
merkantzia besterik ez den hori.

Eta karreraren hondoak
ezkututzen ahal baititu
garaiotan hain urria dugun
esnea miaztu nahi luketenak,
goazen karrikan barrena
jo dezagun karkabatik
eta utz dezagun geure litroa...
Zaratarik atera gabe, noski,
zaratak ez baitu deus konpontzen.

Zeinen leun nire esneduna
urratsa zalu eta arin,
ibilian baino lerran.

Egia da beti sortzen dela
hotsen bat: okerreko urratsa
lorontziren bat bidean
zakurra berezko zaunkaz
edo katu amorragarriren bat.

Eta beti daukagu itzarri, marmar egin
eta lo jarraitzen duen jaunen bat.

Honakoa izu-laborrian itzarri da ordea
(lapurrez josia dago auzoa)
eta ez du ezer jakin nahi izan.

Tiraderako tirogailuak
jauzi egin dio eskura.
Lapurra? Bala batek hilen du.
Egunsentiko tiroek
garbitu zuten nire esneduna.
Ezkongai zen, birjina zen,
alaia zen, ona zen
ez dakit,
berandu da jakiteko.

Baina gizonak logura galdu du
guztiz, eta karrikara jalgi da.
Jainko jauna, errubako bat hil dut.
Katua hiltzen duen balak
hilen du gure haurridea ere.
Ekar dezala medikua nahi duenak,
poliziak ez dio laguntzarik emanen
nire aitaren seme honi.
Salbu da jabegoa.

Gaua da oraino nagusi,
nekez dator goiza,
baina esnedunak,
zabalen zabal, agerian,
galdu egin du zekarren presa.

Behegain baretuan
lehertu den botilatik
zera lodi bat isuri da
esnea, odola... ez dakit.
Gauetik gaizki salbaturiko
gauza ilunen artean,
kolore bi elkarren bila
amodioz besarkatuak,

hirugarren tonu bat sortuz,
egunsentia esaten dioguna.

Amerika

Gizon bat besterik ez naiz.

Gizon txipiño bat ibaiaren ertzean.

Badoazen urei beha, eta ezin kronpreni.

Ozta dakit gautu duela etxetik deika dauzkadalako.

Oilarrek jo dutelako dakit argitu duela.

Nola konpreniko zintuzket, Amerika?

Arrunt zaila da.

Zurituko den kaskoan pasatzen dut eskua.

Aurpegiak nolabaiteko eskarmentua ageri du.

Eskuak hainbeste idatzi du, eta zenbatzen jakin ez!

Ahoak ere ez daki.

Begiek badakite —eta isildu egiten dira.

Ai Amerika, egiten dut hasperen.

Hasperen ahula, airez aireko eztula.

Gogoan dauzkat lagun nituen eta egun lagun ez

ditudan gizon batzuk.

Alferrik deitzea: haizeak, eritasunek, denborak

berak barreiatu ditu lagun zaharrok

barnealdeko hilerri txipitan,

mendien ostean edo itsaso barnean.

Haiek eginen lidakete lagun, Amerika,
maitasunezko solas herabe honetan.

A, zergatik aipa mendi-itsasoak!
Hain txipia naiz (ozta naiz gizon bat)
eta egiazki neure sorterrria baino ez dut ezagutzen,
bizpahiru idi, alorreko bidea,
aspaldi irakurri nituen bertso batzuk,
miraz ikusi nituen puskail batzuk.
Ez dakit ezer aireaz eta uraz, mineralaz eta hostoaz,
sakonki ez dakit giza natura
eta nago ez nukeela gauza horietaz hitz egin behar.

Itariban hasten da karrika bat, nire bihotzera
datorrena.

Karrika horretan iragaiten dira gurasoak, izeba-
osabak, hazi ninduen beltza.

Eskola bat ere iragaiten da —mapa—, margo
guztietako mundua.

Badakit badaudela herrialde bioletak, uharte zuriak,
muino urdinak.

Lurra biribila baino margotsuagoa da, izenak horiz,
gorriz, beltzez grabatzen dira

hautzaroaren errauts hondoan.

Amerika, sarritan bidaiatu nuen zure tinduetan.

Galdu egiten nintzen beti, ez zen samurra itzultzea.

Baforea egongelan zegoen.

Nola itsaskatzen zuen!

Margoak higatuz joan ziren, tonu iluna besterik ez
zen geratu, mundu ilunean.

Itariban hasten da karrika bat, lurraren edozein
bazterretara doana.

Karrika horretan iragaiten dira txinatarrak,
indiarrak, beltzak, mexikarrak,
turkiarrak, uruguitarrak.

Beren pauso presatuek oihartzun dagite harrian,
oihartzun nire baitan.

Denek zapaldua, nola egin irri, zoriontsuak izan
daitezela eskatu?

Karrika bat besterik ez naiz

Minas hiritxoan

Amerikako bide apal.

Halere gaua heldu da, errazagoa da solastatzea
gaututakoan.

Hitz asko esan beharrik ez.
Ezpain higidura gandutsu bat karreran, eta batez
ere isiltasuna,
halako belar lurrin bat, gogortasun gutiago
gauzetan,
gitarrak gorantz ilargiraino, eta nik baino hobeki
kantari.

Kantu bat kantari
gitarraz edo banjoz
hortzak estu,
gogoa zabal,
aldi sakonago baten
oroimena abesti,
ez zegoenean
etxerik ez idirik
eta dena zenean ibai,
suge edo jaguarra,
ez linterna ez
diamanterik,
ez zegoen ezer.
Lehen zakurra
besterik ez

gizonaren aurrean
geroaren suman.
Biak elkar
erreparatzen,
ikertzen, haztatzen
eta laztan mutuak
bakartasuna hautsi.
Kantu bat kantari
kontinente mortuan,
leun, haserretzeke.
Sutondoan
gizonak makur
janaria zain.
Bizarra luze,
eskuak gogor,
nekean beltz.
Ikurtarri maia kantari,
artoaren jainkoa
otoitzean,
arten aurreko loan
murgildurik,
forma zalantzatan
oraino gauzatzeko.
Anartean biziak

aurpegia hautatu.

Beha: hiri bat.

Nork ikusi du sortzen?

Gizakien ametsak

herioaren hotza du

hainbeste ahaleginez.

Ez itzazula iratzar

lo baldin badaude.

Hainbeste hiri mapan... Bakarrak ere ez mila urte.

Eta berrienak ordea, zelako tamala: ez beti

ederrenak.

Zelan egin hiri bat? Zein osagarri behar ditu?

Zenbat sutondo?

Auskalo, hiriak hazi egiten dira,

basoan murgiltzen dira, azaldu egiten dira ostera.

Urreak gatzatu eta urtu egiten ditu, urrezko katiluak

hondar.

Hau guztia goitik ikustea: soldaduak doazen zubia

(azken iraultza itotzera)

zaldiak aldatzeko parada, bulartsuen tupustapa

markatzen duen gurutzea,

kapelu lantegi txipia, oreztak zeuzkan maistra.

Zure zatiok, Amerika, nire eskuan apurtu ziren.

Haurrak, izuturik,
ez daki batzen.

Basamortuak ere bazirela esan zidaten.
Eta landare tristeak, abere nahasiak, oraino zehaztu
gabeak.

Gizon batzuk herrialdez herrialde metal bereziren
baten bila
edo hitzak banatzen.

Zenbait emakume hain dira etsigarri eder
non ezinezkoa baita haien argazkiak ez jatea eta
deabru ez izendatzea.

Ahotsak irratian eta zuhaitzen barruan,
kablegramak, bitrolak eta tiroak.
Zelako zalaparta gauean,
zelako bakartasuna!

Amerikaren bakartasun hau... Mortua eta hiri
handia elkarren zelatan.
Garai kolonialeko ahotsak ageri abesti modernoetan
eta San Francisco ibaiertzeko biztanlea

—gizon isil horrek, ilunabarreko azken argian,
brankako zalburu mamarru geldiaren ondoan
begi ematen du kazeta puska batean Broadwayko
jainkosa garmendiarra.

Oraino guztiz itzarri ez
eta gauaren, espazioaren eta heriotzaren beldur
diren

nire seme-alabetan dirau
oihanaren eta uhartearen sentimenduak.
Milioika gorputzen bakartasuna etxeetan,
meategietan, airean.

Baina bularretarik maitasun zurbil, zalantzati bana
da sortzen,
eskuaren bilaketa baldresa, laguntzeko gogoia,
postan bota gutuna, lo hartzeko arazoak
gizon (ezezagun) bat hil delako kadira elektrikoan.

Beraz, nire bakartasuna bana liteke, ezaupide bihur
liteke.

Beraz, bakartasuna maitasunezko hitza da.
Ez da jadanik krimen bat edo bizio bat edo
gauzekiko etsipena.

Berak du tinkatzen denboran
oinez, zaldiz, hegazkinez edo baforez zure bideetan,

Amerika,

dabiltzan beste gizon batzuen oroimena
edo susmoa edo nahikaria.

Gizon horiek isilik daude baina irri egiten dute
sufrimendua menderatzearen menderatzez.

Irriñoa besterik ez naiz
gizon isil baten aurpegian.

Giza berbaren inguruko otekizunak

Baina zer izan ote
izen azpiko giza:
geografia bat?

izan metafisiko bat?
zabal-gako bako
alegia bat?

Zelan bere buru suma
gizak, hondo jota
bada mundu?

Zelan joan giza
beste giza lagun
galdu barik izen?

Ez galtzen izen
eta jandako gizen,
ezerk ez ote urrun

ez ote hurbil
aitaren primutzaz?
Zelan egin giza?

Aski ote etzan,
larru, dadin
sabelean sor

giza lore?
Zer gisaz egin
bere buru, giza

egin aitzin?
Aita eraiki
eta aita eta bestaita

eta lehen giza baino
antzinagoko aita?
Zenbat balio gizak?

Haztak baino gehi, guti?
Areago egun atzo baino?
Zaharrik, urri?

Urriago hilik?
Batek beste baino,
giza balioa

giza izari bada?
Zelan hiltzen giza,
nola hasten -tzen?

Heriotza gose ote
bere burua jaten?
Urratseko ote hiltzen?

Lotan, hila ote?
Hilik, hila ote?
Giza heriotza

haginetan darabilen
aho-goma irudi,
hurrupako pontxe,

jolaseko ametsa,
urrun-hurbil ote?
Hil, amets, gizak?

Zer dela hiltzen giza?
Ba ote beste gisarik
bizi barik bizitzeko?

Suma ote beste bizi,
ez jadanik bizia,
geroko zoro?

Beste giza bila ote?
Zer dela eskuz esku
giza eta hitsa

eta hain gozo ote
giza orenak?
Baina zer gauza da giza?

Herio beldur ote,
beldur barik buru beste?
Edo beldurrek behar hil

zilar aiztoz
krabata gaiztoz
zubi gainetik amil?

Zer dela bizi giza?
Nork hartarutzen
errubako atxilo?

Zelan bizi giza,
baldin bizi bada?
Kopetan zer gorde?

Eta zertan ez argi
bere sekretua oso
izan arren oker?

Zer dela gezur gizak?
Zein negarrek ordain
giza izate gaitza?

Baina zer min ote giza?
Gizak zelan ahal
jakin zerk min?

Gogo bai gizan?
Eta nork utzi gogon
apurtzeko zera?

Zelan daki gizak
zer bere gogo
eta zer gogo izenbako?

Zertarako giza?
lore ongarri,
ipuin ehule?

giza zerbitzuko?
Jainko sortzeko?
Jainkok zer gizaz?

Eta zer Deabruk?
Zelan gura gizak
helburu, iturburu?

Zer mirari giza?
Zer lo, zer itzal?
Gizarik ote, baina?

Bonba

Bonba

lorezainak laborritzeko izulorea

Bonba

huts egindako laborategi baten ekoizpen
funtslurrindua

Bonba

milioika miseria konfederatzen dituen miseria

Bonba

ergela da basatristea da rokanbolez betea

Bonba

groteskoa da izugarriaren izugarritz eta aztala du
harramazkatzen

Bonba

saguzarrak hegan hasi arte geratzen da lo
igandean

Bonba

preziorik gabekoa da orinik gabekoa da etxerik
gabekoa

Bonbak

zin egiten du bihar zintzoagoa izanen dela baina
ahantzi egiten zaio

Bonba

ez dago kutxaren hondoan, ez dagoen hartan
egoten da bereziki

Bonba

haginbako gezurjario

Bonba

batzar guztietara azaltzen da eta alderdi guztietan
jesartzen zaigu

Bonba

mahai biribila baino biribilagoa dugu, eta karratua

Bonbak

beste bonba bat du faltesten aldian behin
gurutzatzeko

Bonbak

naturaren osagarriak ebatsi eta usteldu zituen eta
gehiago ebatsi eta ustelduko

Bonba

eroale-akziotan eta akziorik gabeko eroaleetan
anizten zaigu

Bonba

negarrez hasten da euria ari duen gauetan,
sutondoan kuzkurtzen da

Bonbak

week-end egiten du Aste Santuan

Bonba

dantzarik dantza ibiltzen da Inauterian

Bonba

50 megatoi gorentasun bider 85 lotsaizun

Bonbak

termitak industrialdu ditu planetarteko misilak
bihurtuz

Bonbak

etendura itotzailea, amnesia, mononukleosia,
berbajariora dauka

Bonba

ez da seriosa, aspergarria da bikainkiro

Bonbak

jaiotzen hasi baino lehen pozoitzen ditu haurrak

Bonbak

pozoika erasotzen die beren bizi osoan

Bonbak

botere espiritualak, aldikalak eta halak ditu
errespetatzen

Bonba

batetik bestera dabil neu naiz bonba esanez

Bonba

nakar bat biziaren begian, kendu ezina

Bonba

hantura bat udaberriaren sabelean

Bonbak

musika estereofonikoa eta urrezko, kobaltozko eta
burdinazko mila morroi dauzka,
konpartsakoez gain

Bonbak

badauzka saltegia zirkua liburutegia misil
eskuadrila e.a.

Bonbak

ez du onartzen iratzar dezaten kausa larriren bat
ez bada

Bonbak

iratzarririk eduki nahi ditu urduriak eta sendoak,
atletak eta elbarriak

Bonbak

hiltzera datorrela pentsatze hutsaz du hiltzen

Bonbak

bere sintaxia ilunera makurrarazten ditu hizkuntza
guztiak

Bonbak

marshmallow-rekin dastatzen du heriotza

Bonbak

iruzurra eta ponpezia politikoa ditu poker

Bonbak

leopardoak hazten ditu baratzean, noiztenka
living-ean

Bonba

usteldua da

Bonbak

damutu egin nahi luke bere burua zuritzeko baina
debeku zaio

Bonbak

bataia zezala eskatu zion Deabruari eta bataioa
legezko ziezaiola Jainkoari

Bonbak

justiziaren balantza maitasun kutxa senidetasun
goiangerutzat dauka bere burua

Bonba

berezienen klubekoa da

Bonbak

begi neokritikoz jotzen du Nobel Saria

Bonba

errussamericanenglishtarra da baina Pariseko
lurrinak ditu maite

Bonbak

uranio garbiko azpilean eskaintzen ditu,
bonifikazio gisa, bake atomoak

Bonba

ez du lanik hartuko arte bisual, zehatz edo
tachistetan

Bonbak

trafiko seinale ultraelektronikoak marrazten ditu
ume-adinduak babesteko

Bonbak

ez du onartzen inork minbiziaz hiltzeko luxua
hartzerik

Bonba

minbizia da

Bonba

ilargira joan, ziztu egin eta itzulian dator

Bonbak

neutroak eta neutroiak murrizten ditu, eta haize
hartzen du kate-erreakziozko
haizekinarekin

Bonba

abusatzen ari da bonba izatearen loriaz

Bonbak

ez daki noiz, non eta zergatik lehertuko den, baina
aurrez dastatzen du ezin esan
ahalako une hori

Bonba

kirastua da

Bonba

zelatari izutuek zaindua da kartoizko dorretan

Bonba

piztia nahasia denez astia ematen dio gizakiari
salba dadin

Bonbak

ez du bizia suntsituko

Gizakiak

(espero dut) birrinduko du bonba

Gutuna

Aspaldi du, bai, idazten ez dizudala.

Zaharkitu egin dira albisteak oro.

Halaxe zahartu neu ere: beha itzazu, erliebean
seinale hauek nigan, ez zuk aurpegian

egiten zenizkidan laztanenak (hain eztiak)
baizik kolpeak, arantzak, oroitzapenak
ilunabarrero haurren jakinduria galtzen duen
zure umetxoaren bizitzarenak.

Ez zaitut horrenbeste behar lotarakoan,
“Jaunak bedeinka zaitzala” esanda
gaua ametsean zabaltzen zelarik.

Itzarritakoan da, zoko batean ikusten dudalarik
nire egunen gaua meta eginda
eta bizirik nagoela sentitzen eta ez ametsetan.

On Kixote eta Antso, Portinarirena XI

Logalduko gogoeta

Zer ote da eromena: zaldun ibiltaria izatea
edo haren ezkutaria izatea?

Gu biotan, zein ote da benetako zoroa?

Itzarririk, eroki egiten duena amets?

Begiak itsututa ere

zinezkoa ikusi eta sorginek

sorgindutako ametsetan dirauen zoroa?

Neu naiz, agian, inozo bakarra

eta horren jakile, zuhurtasun apurrik gabe

zoro —zelako erokeria— zuhur bat naiz.

On Kixote eta Antso, Portinarirena XII

—Hezurretarainoko astuna zait
irabazirik gabeko arriskuak
aurkatzeko festa nekagarri hau.
Nire zoro saria eskatzen dut
eta lanaldiaren kontabilizatzea.

—Antso adiskidea, zoaz pikotara.
Ez dut onartzen fabore mertzenariorik
eta berrehun ezkutari bil nitzake
hutsaren truke betiereko ospearen gose.

—Jauna, zu utzi? Sekula ez.
Urtuko nintzateke damu negarrez.
Zurekin, ni zurekin
azkengarreneko arriskuraino
zure estimua beste saririk gabe.
Besarka gaitezen bada gogoia garbi
nire asturu astuna baita
zure aldean izatea
ardo finaren ondoko patsardo.

Hondamena

Zeantonio lehengusua buruzagi politiko liberala
orodena izan zen Minasén

abokatu

kazetari

hezkuntzako inspektore

bake epaile

udal epailearen ordezk

lizeoko zuzendari

ospitaleko hornitzaile

udalbatzako lehendakari

diputatu

senadore

komendadore.

Bere maiestateak gobernadore izendatu zuenean Rio

Grande do Norten,

non ez baitzen inoiz egona,

Errepublika ezarri zen tarrapataka.

Funtzionario handi bat ezagutu gabe geratu zen

Natal.

Nire lehengusuak ezin izan zuen bere patua bete.

Suntsipena

Gaua dator eta ez nau liluratzen
kriseilu baten bila haztamuka ibiltzeak.
Egunak etsi egin duenez,
onartzen dut gaua.

Eta harekin dut onartzen
begitandurik gabeko izaki eta gauzen
bestelako ordena bat sortzea.

Maite genuen oroz gabetuak
zabalagoa da zerua. Bizitokiak
datoz hutsaditik.
Baten batekoa ote naiz?

Eta ez dut nire larrua bereizten
ilunpe sarkorretik.
Helburu unanime bat biltzen
eta pausatzen da airean. Zalantzan.

Eta gauak berarekin dakarren
espiritu oldarkor horrek
ez du jadanik itotzen. Horrela bakea,
birrindurik.

Mila urte iraunen ote du edo
oilarraren kolorean itzaliko ote da?
Arrosa hau behin betikoa da
txiroa bada ere.

Irudimena, sasizorua
mespretxatzen haut. Eta hi, hitza.
Munduan, iragaite iraunkor,
isildu egiten gara.
Eta arimarik gabe, gorputza, leuna haiz.

Festa II

Inauteria 1970

Laurehun pertsona doaz ihesi Riotik
berrehun mila datoz lasterka Riora,
baita batez biko trabestiak ere.

Festa ikara eta liluragarri, festa baita festa
edo hiriaren gainera jausiko den oinaztura?

Zein izurritek airea hartu eta hil ditu
eguneroko bizimoduaren forma xumeak?

Hiria hil egin da bulegoetan,
lantegietan, dendetan. Auzo osoak
isilean harri. Leiho atalagatuak
protestaz edo amorez.

Hiria klubetan lehertzen
sanbakantari
sanbajole
oihujauzkari.

Makadamean zapart tornasol lilitan
txaloka eta uluka metalezko lorategien artean
zutargi apaindu eta hogeit mila poliziaren artean.

Zapart dagi Rio neureak eta gora,
Ilargiraino doa karrikaren ontzia
eta ilsanban egiten ditu hasperen lau gauegunez
urte osoan erreprimitutako kexamenduak.

Hiri honen dekoratua
itsasoak, mendiak eta palmondoak ziren,
jendearekin bizikidetzan.

Ez zitzaien aski izan. Urteak dira
plastikozko mamuxelak erantsi zaizkiola,
egur-xaflak buru gainean progu ilaran,
dantzan egiten ez dutenen orde z dantzari
edo dantzatzeako aginduka, turismo legea.
Eta pailazoz brodaturiko Rio neureak
pautaz dantzatu du, eta pautaz ate
dantzatzea da bere patua, nahiz eta
desarrazoirik baduen zoriontsu izateko,
edo horregatik hain zuzen, nork daki?
(Jakin nahi duenak sufri dezala nire orde z).
Eta errepikatu egin ditu higidurak, bata
bestearen atzetik berrituz, hauxe izan balitz bezala
Lurraren gaineko lehen inauteria
edo azken inauteria, agur agur.

Eta horra denak
Munizipaleko
lehen dantzara,
eta fantasia
monumentalen
girgileria
nork amestu
hain zoragarriak,
eta sanba jatorreko
(hor nonbait)
eskolak
noiz dira egon,
entzule maiteok,
hain jenial.
Ene Jainko jauna,
lagun egidazu,
sanba hau
zoro z gaidikoa da.

Tribunan puntuemaile kritikoak
azterlariak, objektiboak: "Ez da ongi joan.
Txukunetik urrun egon zen bateria.
Sari hura? 58koaren plagioaren
plagioa (ikus artxiboetan).

Hau & hura eskas, giharrik ez,
inauteri guti inauteriak”.

A, hitz egin dezatela, egin dezatela hitz!
Utz ezazu zulogile sakona maiseaketan,
aspaldi du Pan handia hil zela.
Jaguarraren festaren kiratsean
kazikearen lumaren ikaran
Dodo Criuloren kulunkan
frevo dantzari blokearen dardaran
bakea eta maitasun gehiagoko bandera zurian
edozein inauteri da on on on onena.

Eta merke irten al zaizu parranda, adiskide?
O, hutsaren hurrena: edergailu guztiek
ez zuten milioi eta erdi kruzeiro berri egin:
idunekoaren ale distirantak
itsasertzeko hiriaren saman.
Eta nork egin ditu auzoetako oholtzak?
Auzoek berek, zilar-pikorrik gabeko
txirotasunean, dantzatzearena eginez
urrundik, mortuan eta
konpondu gabeko errepedearen
trankoen sakonean.

Baina egin dezatela hitz, hitz egin dezatela
Penharen, Madureiraren eta Jacarepaguaren
ahotsek.

Inauteria beti da bera eta beti da berria
turistekin edo turistarik gabe
diruarekin edo dirurik gabe
mozorro debekatuarekin eta amets zentsuratuarekin
alaitasun makina montatu desmontatua
beti bera, beti berri
herriaren bihotz mozorrobakoan.

Plater baten beharrean

Laztana,
triste nagon
plater hegalaria bat ikusi ez duen
brasildar bizi bakarra naizelako.
Nire karrikan denek ikusi
eta hitz egin dituen eskifaiakoekin
ezta?, edonork ulertzen duen
erdi kariokaz erdi argiseinale berdez
asmaturiko hizkuntzan.
Barruan sartu ditun (gomitatuta)
hegan ibili ditun hor zehar
han eta bertan
ez pasaporterik ez Ogasuneko ziurtagiririk
behar izan gabe,
dolarrik gabe, laztana, dolarrik gabe.
Gainezka itzuli zitunan albistez
eta superioritatez.
Onbeharreko destainez behatzen zidatenan.
Kamioiren bat
zinema anuntzioak, karrikako zuloak

& horrelako nabarmenkeria lurtarrak besterik
ikusten ez duen Paria naun.

Badinat adiskide bat
astero doana bere platera ikustera
Itaipuko hondartzara.
Ez zidanen deus esaten, ez hitzik egiten
baina bere moldeek, bere begiek!
zoragarrikoak zizkidatenan kontatzen
errepikatuaren errepikatzez arruntak,
plater bat entzun eta ulertzeko gauza ez den
harentzat bakarrik isilekoak.
Zergatik ukatzen zidatenan niri,
niri bakarrik, OHE bat?
menturaz, siglak ez daitezen osoro galdu,
ezer ez baitugu identifikagarriagorik
plater hegalaria baino, gaur bertan
agertua Sao Paulon, bahian,
Barra da Tijucan eta Barra Mansan.
(Herritxo honetako artzainek
trufa egiten zidatenan,
ahalegintzen bainaiz, ez alferrik,
gau eta egun
plater aleren baten burrundara,

itxura, kolorea, atzematen).

Ongi dakin edonondik
dabiltzala: hondartzetan
gaur mugatu zero mugagabea
baita Teresopoliseko lagun baten baratzean ere.
Ongi dakin eta min hartzen dinat
horren uste gutxi izanik
ametsez eta atzarrik
lurrosteko hainbat gauza ikusitako
poeta honengana:
ikusia naun laminak, herensugeak
Ilunpeetako Printzea
emazteki bihurtu goizargi boreala
Congonhas da Luzeko zazpi goigaingeruak
eta beste munduko arima eztiak proguan.
Baina platera, platera?
Ihes eta barre egiten din
nire bilaketaz.

Izugarri hurbil iragan zuan bat (ziostatengan)
ia neu igurtzian. Ez huen ikusi? Ez nian ikusi.
handik jaitsi zuan (omen)
morroixto tornasolatu adeitsu bat
besotik tira egin zidaan: Goazen (o: planx).

Ba ote...?

Horixe ziostatenan auzokoek
eta nik, deitu bazidaten ez bazidaten
soraio eta belarribako itsu
pasatzen utzi neure txanda.

Laztana, tristetxu nagon, tristetzar nagon
Rua do Ouvidorren hain maiz ageri diren
plater hegalarrietako bat ikusi ez duen
bakarra naizelako.

Munduaren makina

Eta hanka gainean baratz nindoanez
Minaseko estrata legartsu batean,
eta arrats apalean ezkila lakar bat

nahasi zenez neure oinetakoen hots
astitsu idorrean; eta hegaztiak
eraka zebiltzanez zeru berunduan,

forma ilunak urtuz mendi haietatik
eta neure izate liluragaldutik
isurian zetorren ilunpe lodian,

munduaren makina zirritu egin zen
hartan sartzeaz etsi-etsian zenari
hartan pentsatze hutsaz negar eginari.

Maiestuos adina sotil zabaldu zen
gardena galdutako zaratarik edo
distira itsugarririk atera gaberik

basamortua ikertze etenezinean
mingarri aspertu diren begi-ninientzat,
eta misterioak duen aurpegian,

osinean marraztu norberaren antzaz
haratagoko errealitate oso bat
konprenitzen akitu den gogoarentzat.

Naretasun garbian zabaldu zen, eta
debaldetan berritzen baititugu beti
noraezeko ibili triste eta berdinak,

usatuaren usatuz galduak dituen
eta eskura nahi ez lituzkeenaren
sen eta zentzumenen puskak gonbidatuz,

gauza denen izate mitikoa dugun
larre ineditoan bazka zitezela
gonbita eginez otoi, guztiei, multzoan,

honakoa esan zidan, nahiz eta hotsik
hatsik edo oihartzunik edo deusen kinkik
atzematen ez zen han frogatzeko norbait,

mendiaren gainean, hits eta ituneko
beste norbaiti ari zela solasean:
“Zuk zeure baitan beti bilatu duzuna,

edo zeure izate mugatutik ate
inoiz azaldu eza, amore eman ustez
unean baino unean gordeago dena,

beha, ohar, ikuska: ezein perla baino
balioagokoa, zientzia itzel
eta gorenokoa, hermetikoa arren,

bizitzaren guztizko argibide hori,
lotura lehen eta berezi den hori,
sumatu ere egiten ahal ez duzuna,

hain gertatu baitzaio higitu zaituen
peskizari labain... ikus, egizu so,
zabal ezazu bularra abegi egitearren”.

Zubi eta eraikin bikain ederrenak,
bulegoetan landu izan den guztia,
pentsatua izana eta berehala

pentsamendua bera atzean utzia,
lurraren bitarteko mendean hartuak,
grinak eta bulkoak eta tormentuak,

lur gaineko izakia osatzen duena
edo abereetara luzatu izan dena
landareetara ere iritsi izan dena

mineralen bekaitz-lo hartan trenpatzeko,
mundu bira eginda ororen ordena
geometriko bitxian berriz amildua,

absurdu originala eta bere enigmak
eta bere egiak, egiari jaso
monumentuak baino luzeagokoak;

eta jainko oroia, eta hil beharraren
sentimendu sakona, edozein izate
aintzakoren kimuan bertan ernatua,

dena agertu zidan soaldi horretan
eta bere erresuma gurgarrira deitu,
giza ikusmenari noizbait men eginez.

Baina, uzkur nintzenez liluramenaren
eskain hari erantzun ahal izateko
fedea ahuldurik, irrika bezala,

esperantza apurrena —eki printza artean
oraino irazten den ilunpe gotorra
urratzen ikusteko nahikari hori;

lehenago larri eta dardaraka deitu
hildako sinesteak ageri ez zirenez
bideetan barrena erakusten dudan

aurpegi neutroaren bizigarri gisa,
beste izaki batek, ez ordea luzaz
neure baitan biztanle izan ohi nuen hark,

bere menpeko hartu izan balu bezala,
izatez aldabera dudan nahimena
ukoan bildu zenez halako deiari

zarratu eta zabaldu dagien lore antzo,
beranduko dohaintza gutziagarri
ez zela iritzirik, baizik erdeinuko,

begiak apaldurik, jakinalfer, nagi,
neure adimenari doan zabaltzen zen
eskaintza gozoari destaina eginez.

Iluntasun astunak beregana zeukan
Minaseko estrata legartsua eta
munduaren makina urrundu egin zen,

bere onera etorri zen emeki, eta nik,
orduan galduari balioa emanez,
baratz jarraitu nuen besoak dilindan.

70eko Munduko Kopa

Nire bihotza Mexikon

Nire bihotzak ez du jokatzeko ez du ezagutzen jokatzeko artea. Zoratzen duen estadioetako bolatik urrun jotzen du, jarraitar, bere klubaren jopu.

Nirekin, nire baitan, nire zaintzapean bizi da. Egun, haatik, itzarri eta, hara!, ez nago neure onean:

Bihotzaren berririk ez? Mexikon da, zuzenean joana, ezer esan gabe, txoko batean kokatua diskret, bandera inarrosi, mikrofono, txalo eta txaranga artean, eta bat-batez, zelan jazo den nik neuk ere ez dakidala, harrotu egin da, eta jarraitar bihotza da bihurtu dena jo, joka eta jokatzeko, maitez eta amorruez, orro: Brasil!

Zoriontasunaren unea

Piztien oldarrean
eta inurrien zuhurrean
Seleçaoak aitzina
driblatu
atzera
bildu egiten du.
Urrun daukat eta nire baitan.
Botek birrindutako Jaliscoko estadioa,
belar nekatua,
bola burlatu eta burlosoa naiz.
Ikusten? Ez naiz ikusle. Jokatzen ari naiz.
Keinuen anabasan, sasitzan
izterreko ukaldian
huts egindako golaren oinazean
erlojuaren itzulian eta handituz doan
itzalpe eremuan eta iristen ez den edo iritsi bai
baina aurkariarena den tantoan... replayaren
bare geldoaren errepikatuan.
Nik ez nuen merezi
jaurtiketa ahul eta oker horren kolpea.
Adurra zuzentzen duen jainko fribolo batek
zigorkatutako hamaika mutil dira

nire hamaika atletak.

Ezinbestekoa da jainko friboloaren aurka ekitea
dena berrizkotik sortzea: inurritxo
bidea ebakitzen
poretako zementuaren sarrian.

Orduan hazten dira gizonak. Norbera da
borroka osorik, zinez. Eta artea da osorik.

Geometria maltzurra,
airezkoa, musikala, elkar ulertzen duten
gorputz jakintsuena, gorputz eder eta izerditu
beraren

atal polifonikoena. Barre egiten dut,
barre zorioneko mintasunez, emetzen baitidate
Tostaok sortuz eta Jairrek amaituz
emaitzaren jokaldia.

Goooooooooola da eztarri loratuan
marrantatuan errementatuan, gola neure bular
zabalduan

gola neure karrikan terrazetan
tabernetan banderetan txapliguetan
gola
zezensuzkoen erroberaren orrobiran gola

bere kasa airean ospatzen duten
papertxoen eurian: paper bakoitza
herrialde osoan barreiatutako dantzaren barrea
besarkada musu eta kantuen festan
legezko gola da berezko gola da eztizko eta ekizko
gola da.

Inork ez nau geldiaraziko, milarena jokatzen dut nik
Pele errege errepublikazalearena egiten dut
herria atleta bihurtua
joko magikoaren poesian.

Rivelino naiz, izenaren irudia
sakatuz, zorrotz, falta.

Clodoaldo naiz Everaldoren puntua.

Brito naiz eta bere burukada bizia

Gerson eta Piazzarekin hazi egiten naiz

indar berriz. Benazko harrotasunez

naiz Carlos Alberto kapitaina.

Felix, besoartea

bola biltzeko eta salbatzeko atea.

Nolatan berotu zen horrela jokoa?

Zein adone bikoiztu azaldu ziren

barne ordezkoen aulkitik?

Ibai batek iragaiten nau ala Atlantiko itsasoa naiz
kantxan barrena pasatzen eta
azkenbako bideo batean, izaki bakarrean
bildutako herritarren artean hedatzen?

Tanpez Brasil baturik geratu zen
bizi pozez, heriotza, gorrotoa
txirotasuna, mintasuna, gibelamendu goibela
handitasunezko eta tinkotasunezko
une garden bat bihurtuz
kirola bitarte.

Ohorez eta graziaz
edertasunez eta apalik garaitzea
heldua izatea eta bizia merezi izatea da,
sortzaldi bat, maitaldi bat.

Zagalo mutil zagaiari
eta bere zelai eta estalpe gizonei
zor diete nire herritarrek
zorientasunezko minutu hau.

Ohean gertatzen dena

(Maite duenak isilean beza
ohean emandako meza)

Maite duenaren isilekoa da
ez hartzea azaletik
barrukoa den gozamena,
lurrean landua
eta mundutik hain bestera
non larruak, larruan baturik
eta bertan aitzina jorik
beste baratze baten bakea du lortzen
bestelako munduan: hilaren bakea,
nirvana, zakilaren ametsa.

Ene, ohea, dringili-drangala,
lo, haurra, lo-kantuan,
lo dago basakatua
lo dago mattantto xaloa
lo dago azken lamina
edo azkenaurrekoa... Zakila
lo dago, puma, piztia

amerikar akitua. Lo dago, bilo-hori,
zure aluaren txirikorda.
Eta maite dutenek
gorde ditzatela isilean
izara eta errezel artean
oraino haziz heze,
oheko sekretu hauek.

Zorua ohe

Zorua maitasun larriaren ohe da
oherako ez dagoen maitasunarena.

Alfonbra gainean edo zoru gogorrean
gorputzez gorputz jendea uztarketa hezean.

Eta maitasunetik atsedean hartzeko, ohera.

Eztuzki liluzki ilunuzki maituzki

Eztuzki liluzki ilunuzki maituzki
leguzki kulunkuzki aniluzki otuzki
milaka aldaerako uzki, anitzuzki, bakarruzki
loruzki, hantuzki
iluzki eta eguzki
buztanuzki

Uzki sorgin eta anitza, irrealaz harat
hermetismoaren eredu zigilatu ezinaguzki
opalokarako uzki
goritasunezko uzki
lizunkeriarren sufrea iristen ez den
muino ilunetan ezkutatu abaraska ezta
eta non
zonalde hiperborearren zurbiltasun orokorrak
itzuluzki kosmikoaren
etenik gabeko musika duen kontzentratzen.

Uzkiño uzkitto uzkia baino uzkiagoko uzki
uzki aldakor / berrikor
harmonia berri baten ezarle kopuruari.

Aurrera doa eta kantari eta espasmoan biltzen
garaipenaren uztaia, hasperenen zubia,
suizidioaren dorrea, Arpoilariaren heriotza
italuzki, larruzki
maituzki maituzki maituzki maituzki.

Azken hatsean den sexuari

Azken hatsean den sexuari natzaio, hasperenez.
O, ene biziaren erroa, zutan naiz biltzen eta batzen.
Maitasuna, maitasuna, maitasuna —sutontzi arraitsu
ematen didana, orgasmoz, munduaren zergatia.

Asegaitz dardaraka den haragi xahartu dohakabea,
neurea matxinatu egiten da heriotza iragarri horren
aurrean.

Abiatu egin nahi dut beti ere xenda estu horretan
maiteak ematen didan gozamenik handiengan.

Bihar, sekula ez. Egun bertan, nork daki?
Izozten zait zaina, suntsitzen plazera
araketa, gozatsu, amaitu baino lehen.

Espasmoak koroa dezala ene amaieraren unea
eta horrela alden nadila, izatasuna sasoiko,
ezinbesteko mortua haziz ihintzeztatuz.